

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

NUPeKo 40 gradu eta masterretako ikasleek Foru Administrazioan praktikak egin ahalko dituzte

Xede horrekin, Iribas kontseilariak eta Lafuente errektoreak lankidetzahitzarmen bat sinatu dute

Jueves, 04 de junio de 2015

Nafarroako Unibertsitate

Publikoko (NUP) gradu eta masterreko berrogei titulazioetako ikasleek Foru Administrazioan praktikak egin ahalko dituzte, Hezkuntzako jarduneko kontseilari José Iribasek eta unibertsitateko errektore Julio Lafuentek berriki izenpetutako lankidetzahitzarmenari esker.

Praktika horiek egingo dituzten ikasleen kopuru zehatza ikasturte bakoitzean finkatuko da unibertsitateak duen ahalmenaren arabera.

2014-2015 ikasturte honetako datuekin, lantokietan praktikak egin dituzten 2.800 bat ikaslek hitzarmen hori baliatu ahalko dute; hitzarmen horrek curriculumeko praktikak egiteko aukera ematen du (nahitaezkoak), bai eta curriculumaren kanpokoak egiteko ere (borondatezkoak) Foru Administrazioko departamentuetan, haien erakunde autonomoetan nahiz sozietate publikoetan.

Ekonomia eta Enpresa Zientzietako, Giza eta Gizarte Zientzietako eta Zientzia Juridiko eta Osasun Zientzietako fakultateetan ematen diren berrogei bat titulaziotako ikasleak dira, bai eta Nekazaritzako Ingeniari eta Industria nahiz Telekomunikazioetako Ingeniarien goi-mailako eskola teknikoetako ikasleak ere.

Etorkizuneko profesionalen prestakuntza hobetzea

Hitzarmenak lankidetzabaterako oinarriak ezartzen ditu, eta haren helburua ikasleen prestakuntza praktikoa hobetzea da haren etorkizun profesionalerako prestakuntza egokia emateko asmoz.

Kontuan hartu behar da, unibertsitateko irakaskuntzen antolamendu berriak lantokietan praktikak egiteari garrantzi berezia ematen diola, honako xede honekin: ikasleen enplegu-aukerak hobetzea, eta haien ekintzaitza, sormen eta berrikuntzarako gaitasuna sustatzea.



Iribas (eskuinean) eta Lafuente (ezkerrean) hitzarmena sinatzeko unean.

Praktikak egiteko, ikasleek tutore baten laguntza jasoko dute, prestakuntza-egonaldia lotzen zaion irakaskuntzarekin zerikusia duena; horrekin batera, ikaslea sartuko den administrazio-unitateko tutore-lanqile baten laguntza.